



13. AKTA

2004ko azaroaren 25ean egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**.

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila lauko azaroaren hogeita bostean.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 12,00etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzaraldiko akta 11. 2004ko urriaren 27koa irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- Arazo kontentziosoen eta Epaitegikoen berri ematea.

Udal Idazkariak hainbat ebazpen judizialen berri eman du, tartean hauena:

- Donostiako 1 zka. daraman Instrukzioko Epaitegiaren Autoa, 2004ko azaroaren 10ekoa, zeinak erabaki baitzuen Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate ohiaren eta Iñaki Ormazabal Azkoitia Udal Arkitekto jaunaren kontra ustezko prebarikazio-delituagatik burututako 374/04 Aurretiazko Diligentziak behin-behineko eran artxibatzea.
- Halaber aditzera eman da 2004ko urriaren 13an Euskal Herriko Justiziaren Aizutegi Gorenaren Liskar Auzi Administratiboko Aretoaren epaia, zeinak ontzat eman baitzuen Donostiako 1 zka. daraman Liskar Auzi Administratiboko Epaitegiak 2003ko irailaren 25ean emandako epaiaren aurka Estatuaren abokatuak tartekaturiko Helegite Errekurtsoa, bada lehendik gaitzetsia baitzuen Portuko Aginteak Udal honen aurka 2002ko ekainaren 4ean tartekaturiko Liskar Auzi Administratiboaren Errekurtsoa, zeinen bidez ekin baitzitzaion legetasun urbanistikoa berrezartzeko espedienteari Portuko Agintearen aurka, Meipi eraikinaren fatxada konpontzeko obrak direla eta, indarrik gabe utziz.

3.- 2004ko Gabonetako Jaietarako Zinegotzi-Delegatuei antizipoa ematea.

Gabon Jaiak gertu daudelarik eta barrutietako Jai Batzordeek beren jarduerak bultza ditzaten, azken urteotan egin ohi den bezala, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Alkateak 2004ko azaroaren 10ean egindako proposamenez,

E R A B A K I D U

Donibane, San Pedro, Trintxerpe eta Antxoko barrutietako Jai Batzordeei bakoitzari 810 euroko subentzia ematea Gabon jaietan ospakizunak zelebratu ahal izateko.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1521/04 Baimenduaren kargura.

4.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen aldaketak.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2004ko uztailaren 1ean eta 2004ko azaroaren 15ean aurkeztutako proposamenak, EJ 1/04 eta Udalaren menpeko laugarren proposamenari dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Aldaketari buruzkoak aztertuta; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat EJ1/04 eta Udalaren menpeko laugarren proposamenei dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz.



BIGARREN.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako partidan sartzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontu-hartzaitza Sailari ematea.

5.- Euskararen familia bidezko transmisioa programa barruan bekak ematea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez eta Euskararen Batzordeko Lehendakariak 2004ko azaroaren 2an egindako proposamenez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- “Euskara Familien bidez Transmititzea” programaren barruan akordio honetako eranskinean adierazten diren bekak ematea Euskararen Batzordeak 1996ko irailaren 11n ezarritako kriterioen arabera (asistentzian %85eko gaitzea eta matrikularen %50 ordaindua edukitzea, 195,00 euroko inporte osoz:

BARREIRO RODRIGUEZ, M ^a CARMEN	60,00 Euro
MARTIN MORILLO, M ^a JESUS	60,00 Euro
ESTEBAN DONAIRE, M ^a ROSA	37,50 Euro
URDANPILLETA ARRIETA, MERCEDES	37,50 Euro

GUZTIRA 195,00 Euro

=====

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-833/04 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioak seinatuz.

6.- 2003/2004 ikasturtean euskara ikasi duten pasaitarrein subentzioak.

Euskararen Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariak 2004ko azaroaren 2an egindako proposamenez eta Gobernu Batzordeak 1992ko ekainaren 1ean hartutako erabakia aplikatuz, zeinen bidez onartu baitziren aipatu subentzioak emateko kriterioak, Tokiko Gobernu Batzarrak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Euskara ikasi duten hurrengo pasaitarrei ondoko subentzioak ematea:

EGIDO CORTES, ITZIAR	156,00 Euro
RODRIGUEZ PRIETO, IDOIA	175,00 Euro



GUZTIRA

331,00 Euro

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioak seinalatuz.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-845/04 Baimenduaren kargura.

7.- “Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea” obraren 6. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 6

Obra: "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HIRUROGEI MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (60.473,67 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-379/04 Disposamenduaren kargura.

8.- “Trintxerpeko Goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren” obraren 6. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 6

Obra: “Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren” obraren 1. ziurtagiria.

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.



Zenbatekoa: EHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA BAT EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (161.301,23 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-379/04 Disposamenduaren kargura.

9.- Arrandegi kaleko 16 etxebizitzetako baten esleipena baliogabetzea.

Arrandegi kaleko 16 etxebizitzetatik bat José Frantzisko Etxeberria Dorronsoro jaunari esleitzearen aurka espedienteari ekinik.

Ikusirik interesatuak 2004ko urriaten 26an idatzitako helegiteak, esanez Gipuzkoako Lurralde Historikoan ez duela ondasun higiezinik eta Gipuzkoako Foru Ogasunaren ziurtagiria ekarriz eta kreditatuz Karlos Iako 16an dagoen eta herentziaz dagokion bere pisoaren %12,5a jabetza hutsa dela, usufuktuan duena.

Kontuan izanik aipatu aurrekarien arabera José Frantzisko Etxeberria Dorronsoro jaunak benetan ez duela etxebizitzarik eta etxebizitza behar duen pertsonatzat har daitekeela Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumenaren Kudeaketa Kontseilariaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduko 3.5 artikulua aurreikusten dituen betebeharrak osatzen dituelako, hau delarik esleipen momentuan indarrean dagoena eta Etxebizitzen beharrak arautzen dituen.

Toki Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ontzat ematea JOSE FRANTZISKO ETXEBERRIA DORRONSORO jaunak aurkeztutako helegiteak.

BIGHARREN.- Inolako etxebizitzarik ez duela dioen betebeharra ongi kreditatzen duela deklaratzeko, betebeharrak hau agertzen baita Arrandegi kaleko Konbenio Urbanistikoan bertako 16 etxebizitzak esleitzeko eta ondorioz, izapide gehiagorik gabe espedientea artxibatzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioak adieraziz.

10.- Izotza egiteko industria-jarduera irekitzeko lizentzia eskaera Portu Eremuan.

Gai hau mahai gainean geratzen da ikerketa sakonaren zain.

- Gai-zerrendatik at eta bertako zinegotziek aho batez bertan sartzea aurrez berretsi ondoren, honako akordio hauek hartu dituzte:

11.- “Bizkaia Plazaren Urbanizazioa” obraren 4. ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtapena:

Zka.: 4

Obra: "Bizkaia Plazaren Urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Eduardo Ramos Platón j. (Arkitektoa) eta Ainara Alvarez (Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria)".

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMAIKA MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMAIKA EURO ETA LAU ZENTIMO (31.191,04 Euros).

Indarreango udal aurrekontuko D-508/04 eta D-509/04 Disposamenduaren kargura.

12.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei diru-laguntzak. 5/04 zka. daraman proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2004ko azaroaren 23an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 13.534,95 eurokoak. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1560/04 Baimenduaren kontura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 12,45etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, jarduneko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.